

STM

donostiakultura.com



San Telmo Museoa

Zuloaga plaza 1
20003 Donostia – San Sebastián
Telefonoa: 943 48 15 80
santelmo@donostia.org
www.santelmomuseoa.com

KALEJIRA 2

Lan koadernoak irakaslearentzat

San Telmo museoa



KALEJIRA 2

DONOSTIAKO ZABALGUNEAN ZEHAR



Erakunde laguntzaileak:



Patrono pribatuak:



IBILBIDE TEMATIKOA

Proposatzen den ibilbidea mistoa da; hau da, azalpenak ematen dituen bisitaldi gidatuarekin batera, ikasleek fitxetan eskatutako informazioa ere osatu behar dute.

Dena den, San Telmotik kanpo egiten den ibilbide honen izaera aske samarra da. Esperientziak irakatsita, badakigu askoz dinamikoagoa gertatzen dela ahozko komunikazioa eta elkarreragiletasuna gauzatzea ezen ez fitxak zehatz-mehatz betetzea, bai kontratatutako bisitaldi gidatua denean, bai irakasleak zuzendutako bisitaldi autonomoa denean ere. Lan koadernoan, hortaz, bertan erabil daiteke, edo, bestela, lehenago eta batik bat geroago ikastetxean landu. Izan ere, bisitaldian ikasleak argazkiak egitera ere animatzen da. Hautatutako eraikinak erreferenteak dira; baina helburu orokorra da ikasleek uler ditzaten, azaletik bada ere, hirigintza historikoaren zertzelada nagusiak, gaur egungo urbanismoan oraindik orain eragina dutenak: etxeak, zerbitzu publikoak, zerbitzu pribatuak, joan-etorriak, etc.

Areago, eraikinei ezarritako numerazioa ere orientabide bat baizik ez da, lana errazteko modu bat; ez da nahitaez jarraitu beharreko ibilbide zorrotza: bat edo beste bertan behera utz liteke, ordena aldatu, interesa izanez gero inguruko beste hainbat elementuri erreparatu...

Jakina, bisitaldi gidatua kontratatu beharrean irakasleak bisitaldia bere kabuz egin nahi badu, hemen agertzen diren bisitaldi gidatuarekiko erreferentziak haren gain geratuko dira. Horregatik, hark egin nahi lituzkeen azalpenez aparte, eta haren lagungarri, koaderno honetako fitxetan erantzunetatik harago doazen azalpen zenbait ere gehitu dira. Azalpen horietako datuak edo gogoetak ikasleei helarazi ala ez, eta, egitekotan, nola, irakasleen ardura-pean geratzen da, bera baita taldea hobekien ezagutzen duena. Gerora edo lehenago ikastetxean jorratzen diren gaien osagarri erabiltzea ere haren esku geratzen da.

Gaietan sakondu beharrean gehienbat iradokitzeko eta gogoa pizteko ibilbidea izanda, oso zabalik gertatzen da ikasle mailen aukeran. Urte askoko eskarmentuak, ordea, esaten digu talde egokienak direla, batetik, Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. ziklokoak; bestetik, helduak eta dibertsifikaziokoak. Jakina, bigarrenon kasuan fitxetan azaltzen den idazkera, edota marrazteko ariketak, ez dira aproposak (hortik, bada, ibilbidea modu libre samarrean gauzatzearena); baina edukien mamia eta izaera oso erakargarria izaten zaie, ez baitzaie alde zuzenik ikasketa handirik edo Donostiari buruzko jakintza sakonik eskatzen.

Jarduera osoa egiteko, bi ordu inguru kalkulatu da.

OHARRA: Irakasleen gida honetan, ariketen erantzunak eta azalpenak beltzago eta etzanean daude.



1



Eraikina bi urtean altxa zuen Franciso Urcola arkitektoak, 1910. urtetik 1912. urtera.

Victoria Eugenia Antzokia

1.- Zertarako egin zen eraikin hau, zer helbururekin?
Antzokia izateko, eta hala jarraitzen du

2.- Ba al dakizu zergatik duen izena Victoria Eugenia? Orduko erreginaren izena zelako: Victoria Eugenia Alfontso XIII.aren andrea zen



3.- Zer musika-tresna darama eskuan lehenengo irudiak?
Lira musika-tresna

4.- Zer darama eskuan bigarren irudiak? Maskara bat, antzezpenaren sinboloa

5.- Zergatik uste duzu daudela irudi horiek dauden tokian? Musika eta antzerkia egiteko tokia delako

6.- Esango al zenidake nor den? Antonio Okendo almirantea, XVII. mendeko itsastarra



7.- Non jaio zen? Donostian

8.- Zer material erabili dute estatua egiteko? Brontzea



2



Charles Mewes arkitekto frantsesak diseinatu zuen. 1912. urtean inauguratu zuten.

María Cristina Hotela

1.- Ba al dakizu zertarako balio duen eraikin honek?

Hotela izateko, eta hala jarraitzen du

2.- Hotelak María Cristina du izena. Beste zein lekutan azaltzen da izen hori?

Adibidez, izen bereko zubian, geltoki parean, eta Ondarretan duen estatuan: errege Alfontso XIII.aren ama zen

3.- Eraikin honetan Daniel Zuloagak egindako dekorazio oso originala dago.



Esango al zenidake zer dagoen? Dragoiak

Animalia fantastikoak al dira? Bai, jakina

Beste lekuren batean azaltzen al dira? Bai, adibidez, Maria Kristina zubian eta beste farola batzuetan

4.- Marraztu hutsarte horretan zuk gustuko duzun zerbait.



3



1915. urtean proiektatuta, dituen sei farola handiengatik nabarmentzen da. Jose Eugenio de Riverak eraiki zuen.

Kursaaleko Zubia

1.- Zergatik uste duzu deitzen dutela Kursaalera Zubia?
Kursaal eraikinaren ondoan dagoelako

2.- Ba al dakizu beste izen batekin ere ezagutzen ote den? _____

Zurriolako zubia



3.- Farola horiek gustatzen zaizkizu? _____

Aspaldikoak edo modernoak iruditzen zaizkizu? _____

4.- Farola horri pintura joan zaio, margotu nahi zenuke?

Margotu ezazu zuk gustukoena duzun kolorearekin.




4



1872. urtekoa, Antonio Cortazarren obra da. Donostian eraiki zen lehenengo zubia da.

Santa Katalina Zubia

1.- Denbora luzean egurrezko zubia izan zen, arriskua zegoenean suntsitu egiten baitzuten etsaiari



pasatzen ez uzteko. XIX. mendean harrizko zubia eraikitzen hasi ziren, bi argazki hauetan ikus daitekeenez, baina ... Zer ezberdintasun daude?

Argazki zaharrenak bost begiko zubia erakusten du, eta berrienak, laukoa baino ez



2.- Zure ustez, zer gertatu zen? Erantzuna ez badakizu, galdetu zure irakasleari. _____

Ibaia kanalizatzean, begia estalita geratu zen, gainaldean plazatxo moduko espazioa irabazita



3.- Santa Katalina zubiko farola horretan bi armarri daude:

Zer armarri dira? Gipuzkoakoa eta Donostiakoa



5



Tren-geltokiaren aurrean kokatuta, 1914. urtean eraiki zuten, bai eta berehala eraiki ere: 9 hilabetez bukatua zegoen. Jose Eugenio de Riverak eraiki zuen.

Maria Kristina Zubia

1.- Horra Maria Kristina zubia, 88 metro luze eta 20 metro zabal. Zubiak dekorazio oparoa dauka. Jakingo al zenuke esaten zubiaren pilastran zer dagoen?

Itsasontzien brankako maskaroria dirudien edergailua

2.- Bigarren argazkiko herensugeak zer materialez daude eginak? Zer armari dago erdian?

Urtutako burdinaz. Donostiako udalarena



3.- Non daude zaldi horiek? Zubiburuen gainean

4.- Farola horietako bat ez da ezein zubitakoa, asmatuko al zenuke zein den? Hirugarrena



5.- Non aurki daiteke farola hori? Kontxako hondartza gainean

6.- Jakingo al zenuke esaten zubi bakoitzari zein farola dagokion? 1.a: Santa Katalinakoa;

2.a: Kursaalakoa; 4.a: Maria Kristinakoa



6




Manuel de Echave arkitektoaren obra. 1897. urtean inauguratu zuten. Igeldoko harrobietatik ekarritako harriekin dago eraikia. Orratz itxurako dorreak 75 metro neurtzen ditu.

Artzain Oinarren Katedrala

1.- Haizeak dorrea eraman zuen, baina beste gauza batzuk ere falta dira; esango al zenidake zeintzuk diren? Arrosa-leihoak: koloretako beiradun leiho biribil

handiak, barnealdea argiz eta kolorez betetzen dutenak

Marraztu falta dena:



7



1906. urtean Domingo Aguirrebengoa arkitektoak eraiki zuen.

~~Posta-etxea~~

1.- Hasieran eraikin hau eskola bat zen eta ondoren Udal Museoa egon zen bertan, baina ba al dakizu zertarako erabiltzen den eraikin hau orain? _____

Posta-etxea da

2.- Eraikinean dagoen dekorazioa gustuko al duzu? _____




3.- Zer da bertan dagoena? Girlandak eta landarezko bestelako apaingarriak: loreak, hostajeak...

4.- Eraikinetik gertu elizarik ba al dago? Bai

5.- Esango al zenidake zein den? Artzain Onaren katedrala...

6.- Hartu zure margoak eta anima zaitez zuk gustuko duzun moduan Posta-etxeako teilatua osatzen.



8



Ramon Cortazar eta Luis Elizalderen obra. 1900. urtean amaitu zen.

Koldo Mitxelena Kulturunea

1.- Ba al dakizu zein den eraikin honen zeregina?

Kultur unea: liburutegia, erakustaretoak, hitzaldi aretoa,

Aldundiko kultur teknikarien bulegoak...



2.- Zergatik du izena du Koldo Mitxelena? Euskal hizkuntzalari handiaren omenez: besteak beste, euskara batuaren sustatzaile nagusietarikoa izan zen.

3.- Zergatik uste duzu dagoela banderola bat zintzilik?

Beti izaten delako iragarri beharreko erakusketarik edo ekimenik



4.- Zutabe horiek eraikinaren aurrealde nagusian daude, lehenengoak bigarrenak baino apainduagoak daude. Marraz itzazu laukian bi zutabe zuk nahi bezala.



9



Luis Aladren eta Adolfo Morales
arkitektoek eraiki zuten 1882. urtean.

Udaletxea eta Alderdi Eder

1.- Eraikin hau egin zutenean kasino bat jarri zuten bertan eta orain udaletxea da. Ba al dakizu zer egiten den udaletxe batean? Udalbatzaren bilkurak, eta alkate,

zinegotzi eta teknikarien bulegoak daude; udal administrazioari loturiko kudeaketak bertan egiten dira

2.- Alderdi Ederreko lorategiak zein ederrak diren begiratuko dugu. Zergatik uste duzu dutela izen hori? Harresiak bota ondoren paseatzeko lorategiak ezarri zirelako. Lehenago ez zegoen halakorik



3.- Horrela zeuden lehen lorategiak, eta orain gauza gehiago dituzte. Esango al zenizkidake berrietako batzuk? Tamariz arbolak, karrusela, lorategi gehiago, bidegorria, eskulturak...

4.- Marrastu ezazu hemen zuri gustatuko litzaizukeen lorategia.



10



Jose de Goicoa arkitektoaren obra,
1879. urtean bukatu zuten.

Foru Aldundiaren Jauregia eta Plaza

1.- Oso handia den jauregi honek Okendo, Urdaneta,
Legazpi, Lezo eta Elkanoren irudiak dauzka: Zeintzuk
ziren gizon horiek? XVI. eta XVIII. mendeen arteko gipuzkoar

itsastar handiak: Donostiako Antonio de Okendo, almirantea; Ordiziako
Andres de Urdaneta, Itsaso Barean bide berriak asmatu zituen nabigatzailea;
Zumarragako Migel Lopez de Legazpi, konkistatzailea eta Filipinetako
Manila hiriaren fundatzailea; Pasaiako Blas de Lezo, itsas gudaria, borroke-
tan hanka, eskua eta begia galdu zituena; Getariako Joan Sebastian Elkano,
mundu bira lehen egin zuena.




2.- Foru Aldundiaren jauregia Gipuzkoa plazan dago eta
lorategi eder bat dauka, zuhaitz, lore, banku, estatua,

animalia eta guzti. Jakingo al zenuke esaten zein den estatuako musikari ospetsu hori?

Jose Maria Usandizaga donostiarra

3.- Zein mahai mota dago bigarren argazkian? Eguzki-erloju bat da

4.- Zer iruditzen zaizu falta dela urmaelean? Beltxargak



IBILBIDEA

1. Victoria Eugenia antzokia
2. María Cristina Hotela
3. Kursaal zubia
4. Maria Kristina Zubia
5. Santa Katalina Zubia
6. Artzain Onaren katedrala
7. Posta-etxea
8. Koldo Mitxelena Kulturunea
9. Udaletxea eta Alderdi Eder
10. Foru Aldundiaren Jauregia eta plaza

